

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAGRÁNGO UDALA

Hiri eta landa ondasun higiezinaren gaineko zergaren eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2026ko kobrantza

Jakinarazten da 2026ko urriaren 1etik azaroaren 30era arte kobratzeko moduan egongo direla zerga hauei dagozkien ordainagiriak:

- Hiri ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Landa ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga.

1. ORDAINTZEKO EPEA:

A. Borondatezko epea: 2026ko urriaren 1etik azaroaren 30era.

B. Epe exekutiboa: 2026ko abenduaren 1etik aurrera epe exekutiboari emango zaio hasiera, eta betearazte errekarguak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

2. ORDAINTZEKO TOKIA ETA MODUA:

A. Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta dutenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta zerga aurreko urteetako banku kontu berberetik ordaintzen badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B. Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa bankuan helbideratuta ez dutenek borondatezko epean soilik ordaindu ahal izango dute udal bulegoetan, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.

3. GOMENDIOAK:

Banku helbideratzeen altak edo aldaketak, eta helbide aldaketak aurrerantzean jakinarazpenak egiteko, Lagránko Udalean izapidetu beharko dira.

Guztiekin jakin dezaten argitaratzen da.

Lagrán, 2026ko irailaren 7a

Alkatea

URTZI GAINZARAIN GONZÁLEZ DE DURANA